



Gazteak, festaren protagonista

KOADRILAK ▶ Koadrilen Egunean 600 bat lagun elkartu ziren zikiro jatean plaza Berrian eguzkipean

KIROLA ▶ Tenisean Aldazek irabazi zuen, txirindularitzan Julen Gonzalezek eta Tolosa Kup-en Kupelzaleak taldeak ▶ 4-5



Bazkaria. Jende asko bildu zen Plaza Berrian Koadrilen Eguneko bazkarian. Eguzkiaz babesteko guardasol ugari jarri behar izan zituzten koadrilek. IÑIGO TERRADILLOS



Zikiroa. Koadrilen Eguneko bazkarian zikiro jatea izan zuten. Goiz osoan zehar aritu zen talde bat zikiroa prestatzen. IÑIGO TERRADILLOS



Txirindularitza. Julen Gonzalez helmugara iristen. IÑIGO TERRADILLOS

BALIARRAIN ▶

Jaso dute
Jauregiren
gorpua

Herenegun agertu
zen Urdazubin ▶ 7



LANDARRI, S.L.

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak	- Eraikuntza ezberdinak
- Ehorzketak	- Hilobien apainketa
- Lurpetik ateratzea	- Hilarriak
- Gerakinen lekualdatzea	- Panteoiak
- Gerakinen errausketa	- Hilobiak
- Errausketa zerbitzua	- Estelak
- Hilerriaren proiektuak	- Fotozeramikak
- Hilerriaren eraldaketak	- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 01 14 - Fax: 943 34 04 67 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552
posta elektronikoa: landarris.l@terra.es

TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- ▶ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- ▶ 2001ean, Eusko Jaurlaritzako Zilarrezko "Q" saria
- ▶ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Goi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazio Bidezko Produzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemen Administrazioa

**MATRIKULA IREKIA:
UZTAILAREN 1etik 7ra**



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA





UZTURRETIK
EKAIN GARMENDIA

Printze(sa) txikiaren hitzak

Oraindik denbora asko ez dela, lehen-gusu baten hiru urteko alabarekin jolasean nentzela, idazten ikasten laguntzeko eskatu zidan. Hitz bat idazten nuen orrian, ostera berak azpian kopiatu zezan. Ez zuen dudarik izan aurreneko hitza aukeratzekoan: «ama». Kaligrafia trakets ez kopiatu zuen nik lehenago idatzitako: «ama», letra bakoitza kontu handiz borobilduz. Bestek egindakoaz harro dagoenaren urguilu infantiliz begiratu nion; hark, bitartean, haurrena soilik izan daitekeen heldutasun-begirada ez zuen paperetik kentzen. Burua altxatu gabe, ardurati, galde egin zidan: «Ze jaritze du hemen?». «Ama» erantzun nion, zirriborro haren esanahia errepikatu beharrak harrিতuta. «Baino ze... Maider?», galdetu zidan ostera, azalpen gehiagoren eske. «Ez... ama...». Serio begiratu zidan, tonu urduriko azken galdera bat jaurtiz: «Bai, baino... zuria edo neria?»

Mutu geratu nintzen. Pairean nuen ume harentzat «ama» hitza bere amari buruzkoa zen bakarrik. Txikia zen bere mundua, eta erabiltzen zituen hitzak txikitutasun hartara moldatzen zituen. Inguruan zeukan gauza bakoitzari izen bat eskaini zion berak, gauza eta izenaren artean lotura estua sortuz, izen bakoitzak bere gauzaren kolorea hartuko balu bezala. Ezagutzen zituen hitzak bere mundu txikiaren isla koloretsuak ziren, eskura zituen gauza eta pertsonen ispilua. Papelean zetzan «ama» hura inoiz irakurri nuen poemarik laburrena zela pentsatu nuen. Zoritxarrez, laster zabalduko ziren lagun txiki haren munduaren mugak, hitzek beren margoa galdu eta tonu gris bat hartu arte.

Hau guztia pentsatzen nuen bitartean, bere begiek arretaz behatzen ninduten, bere planetako arrosa bakarra galtzeko beldurra balute bezala. Behin eta berriro errepikatzen zidaten lehenago egindako galdera: zuria edo neria? «Zuria matia, zuria».



Eskopetariak, milizia foralen ondorengoa

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Historian zehar garrantzi handia izan zuten milizia foralak gogoratu nahi dituzte San Joan jaietan ateratzen diren eskopetariak. Hauen aipamenak agertzen dira

XVI. mendeko idazkietan. Argazkian, duela hamarkada batzuetako eskopetari taldea, kantinera eta guzti, Santa Maria plazan. 'TOLOSA ZAHAR-BERRIAK' LIBURUA.

IÑIGO ANSORENA ▶ HIPIKA IRAKASLEA

«Bizitzeko era da hipika, ilusioa eta desesperazioa, eta sentimentu asko»

Ingalaterran hipika irakasle eta ikasle da Iñigo Ansorena tolosarra; txapelketetan hamar onenen artean da egun

LEIRE MONTES

Urtean hogeitatu egun pasatzen ditu etxean Iñigo Ansorena hipika irakasle tolosarrak. Ingalaterrara itzuli aurretik mintzatu da HITZAREKIN; ingelesezko hitz asko tartekatatu ditu solasaldian, nahi gabe.

Zergatik hipika?

Txikitatik izan dut gustuko. 8 urte nituenean aitak zaldian ibiltzera eraman ninduen. Harrezkero, igandero hasi nintzen joaten. Gaur egun arte.

16 urterekin nire bizitza animalia batengatik ari nintzen erabakitzen. Zorionez, dena oso ondo joan zait.

Gero, beste salto handiagoa: Ingalaterrara.

Hipikan aurrera egin nahi nuen. 3. mailako irakasle titulua banuen, baina 4.a eta 5.a ere lortu nahi nituen. Horretarako, Espainiatik kanpo joan behar da; eta nik Ingalaterra aukeratu nuen.

Zer dela eta?

Hipikaren inguruan duten eza-gutza eta maila izugarria da. Alemanian eta Holandan ere onak dira. Baina, niretzat, ingelesak, bikainak.

Deskriba iezaadazu zure egun bat han.

Lomont zentruan bizi naiz, Horsehill herrian, Londresetik 30 minutura. Bertan 4. mailako titulua ateratzeko eskolak jasotzen ditut, eta, era berean, irakaslea naiz. 07:00etan jaikitzen naiz, zaldiei jaten ematen diet, eta astirik badut ukuluak garbitzen ditut. Eta gero, entrena-

tza edo klaseak ematera. Arratsaldean berdin: zaldiei jaten eman, eskolak jaso eta eskolak eman. Denbora librerik ere badut: irakurri, Interneten hipikari buruzko webguneak ikusi, txapelketen inguruko informazioa bildu, lagunekin aterara...; denetik egiten dut.

Desberdintasunik nabaritu al duzu Espainiako eta Ingalaterrako hezkuntzen artean?

Lan egiteko era oso desberdina da. Ingalaterran zaldiari gehiago zuzenduta dago, zaldiari lagundu egiten zaio zaldikoari lagun diezaion. Bi ikuspegi desberdinak dira, baina biak onak. 4. eta 5. mailan teknika gutxiago eta zaldiarekin harreman estuagoa dago, eta horri asko gustatzen zait.

Jendea ere desberdina al da? Harremanetan, adibidez, guk

gehiago azaltzen ditugu gure sentimentuak. Han hotzagoak dira, hasiera batean behintzat. Oso kultura desberdina da.

Kostatu al zitzaizun hara moldatzea?

Haien formaltasunera ohitzea, gehienbat. Ongi hezitako jendea da, formak asko zaintzen dituen. Hasieran, arrotza egin zitzaidan egoera.

Egunkarietako albistetan norberaren izena irakurtzeak inpresioa egiten al du?

Inpresioa baino, poz handia. Nazio mailako lehiaketa askotan hartu dut parte, eta primeran ari naiz. Duela hilabete Ingalaterrako bosgarren postua lortu nuen. Lehen hamarren artean egotea handia da.

Zer asmo dituzu orain?

Onenen artean jarraitu nahi dut, jendeak ni ezagutzea gus-tatuko litzaidake, izen bat izan. 4. mailako titulua ateraz gero, nire zentru propioa ireki ahal izango nuke. Eta 5. mailakoak ate asko irekiko litzaidake: Espainian pertsona bakarrak du, nire irakasle izandakoak.

Modalitate guztietan aritu nahi duzu, gainera.

Irakasle ona izan nahi badut, denetik jakin behar dut: hezte klasikoa, jauzia pistan, eta *cross country*-a —jauziak mendian—. Zaldiko osoa izanda lan gehiago dago, diru gehiago, ospe handiagoa.



MIKEL ALONSO
REALEKO FUTBOLARIA

«Sorian Lehen Mailara igotzeak beste batzuei Liga irabazteak baino poztasun handiagoa ematen du»



ISABEL DUMALL
ASTEASUKO KIROL ARDURADUNA

«Muskulazio gelan eta pilotalekuan parte-hartze handia sumatzen dugu»

IRITZIA ▶ MARTXELO OTAMENDI ('BERRIA'-KO ZUZENDARIA)

'Berria'-k urtebete

Urte luzea, nahiz hamabi hilabete-koa izan den, bizi izan dugu erre-dakzioan. Denbora gutxian jaso behar izan genuen *Berria* egunkaria, ez ezer ezetik ordea, 2003ko otsaileko kolpea gogorra izan arren, ez zitzaigulako ahaztu egunkari bat egiten. Baina oso denbora gutxian kaleratu genuen *Berria*, erakutsi beharra zegoelako Espainiako Auzitegi Nazionala ez dela inor erabakitzeko herri honek nolako komunikabide-ak behar eta edukiko dituen.

Egunkari standarra egin nahi izan genuen, egunkari batek barruan dauzkan betiko atalekin: politika, gizartea, iritzia, ekonomia eta abar... Baina abagune hura baliatu nahi izan genuen berrikuntzaren bat sartzeko, ordura arte egin gabekoa egiteko. Premia horretatik jaio zen *Tartea* eguneroko gehigarria, 2003ko udan argitaratu genuen *Itzalean* gehigarriaren bide beretik. Bi egunkari eskaini nahi genituen batera, estandarra kanpoko eta irakurtzen errazagoa barrukoa. *Tartea* kontzeptu berritzailea da Euskal Herriko prentsan, orain arte inork landu gabekoa.

Asteburuetako eskaintza zabaltzeko asmoarekin hiru gehigarri argitaratu ge-

nituen: larunbatetan haurrentzako *Man-tangorri* eta igandeetan *Egitura* ekonomiakoa eta *Igandea* orokorra.

Aste hauetan gehigarri berrien aukerak ari gara aztertzen, baina aurrera genezake urritik aurrera, gazteentzako aseteroko gehigarri bat argitaratuko dugula, hamasei orrialde koloretan edukiko dituen.

Informazio orokorrari dagokionez, *Berria* saiatu da, bai Euskal Herrian, baita ere Euskal Herriatik kanpo, albistea gertatu den lekuan egoten. Abuztuan Atenaseko Joko Olinpikoak jokatu dira eta hantxe egongo dira BERRIAko bi kazetari Euskal Herriko kirolarien eta mundu osoko izarren berri emateko.

Hiru sari jaso ditu *Berriak* urtebeteen. Hiruetan Mundua sailan egindako lana saritu dute: Argia Saria prentsan, bigarren saria Katalunian jaso genuen, Kataluniatik kanpoko komunikabideari emandako saria izan zen. Eta hirugarren saria, MIDAS saria.

Paper euskarririk, euskari digitalera pasatuta utzi iezadazue nabarmetzen www.berria.info zerbitzuak lortu duen erreferentzialtasuna. Euskarazko edizio jarraitu digital informatibo bakarretakoa

da, 7.000 bisitari baino gehiago dauzka egunero eta informazio puntualaz gain paperezko edizioaren hainbat atal jasotzen ditu.

Saiatu gara urte honetan euskaraz irakurtzeko prest daudenentzako produktu kalitatekoa egiten. Ez genuen beti asmakoa, seguru, behin baino gehiagotan hanka sartze onartezinak egin baititugu, hizkuntza kalitatearekin arazoak dauzka eta ez ditugu erabat konpondu; baina ez dugu atsedenik hartuko euskaraz irakurtzeko prest dauden horiei mezezi bezalako produktuak eskaini arte. Senti dezatela, denek, *Berriak* eskaintzen diela nahiko arrazoi erreferentzia informatibo idatzi nagusia izateko, jakinda ezinezkoa dela irakurleen %100 argitaratutako %100arekin gustora egotea. Baina bai gutxieneko arrazoiak, askotan pertsonalak direnak eta beti askotarikoak, aurkitzen dituzela gurekin segitzeko. Norbanakoaren arrazoiak denak elkarrekin jarrita egiten baitute komunikabide bat erreferentziala; alegia, handia, kantitatean eta kalitatean.

Hori da gure eginkizuna, zuen laguntza eta animoarekin betetzea nahiko genukeena.

PERTSONALKI ▶

▶ Tolosan jaioa ▶ 1984ko martxoaren 9an ▶ Sanjoanetako gaurko zezenketara zaldi gainean joango da; «nire herrian ilusio handia egiten dit; lotsa kentzeko ere balioko dit» ▶ Hipikaz gain, igeriketa, mendia eta lagunekin irteera du gustuko

Zaldiaz gain, animalia bat? Txakurra, *Zaldikoa*, *zaldia*, *txakurra*, dio esakerak. **Zaldiarentzat kolore bat?** Marroia eta beltza. **Hipika modalitate bat?** *Cross country*-a; arrisksuena da, baina baita zirrargarriena ere, adrenalina franko botatzen da!

HELBURUA

«Onenen artean jarraitu nahi dut, jendeak ni ezagutzea gustatuko litzaidake, izen bat izan»



Zer da hipika zuretzat?

Bizitzeko era, ilusioa, desesperazioa, une txarrak eta une onak, eta sentimendu asko.

Eta zaldia?

Nire laguna. Ni ezagutarazten laguntzen dit, dirua irabazten, izen bat izaten. Nire lankiderik onena da. *Maddy* nire behorak [Middlesweetizenarekin da ezaguna txapelketatan] asko laguntzen dit, oso bizkorra eta azkarra da. Zaldiko ona izatea ez da nahikoa; zaldi ona edukitzea oso garrantzitsua da.

Zer da Ingalaterratik gehien gustatzen zaizuna?

Jendea nola sozializatzen den. Hasieran hemen baino hotza-

goak dira, baina harremanak estuagoak dira gero.

Eta gutxien?


Eguraldia! Egunero hotzez, euripean... Ez naiz ohitzen!

Oso aldatuta aurkitu al duzu Tolosa?

Gabonetan eta udan etortzen naiz etxera. Dena berdin dagoela iruditzen zait. Uzturrek bere lekuan jarraitzen du...

Eta zure bizitza, asko aldatu al da?

16 urte nituenetik erabaki garrantzitsuak hartu ditut. Kanpora joateak heltzen lagundu dit. Izugarri aldatu zait bizitza, baina onerako. Nahi dudana egiteko zortea dut.



LEIRE MONTES

TOLOSA ▶ KOADRILEN EGUNA

Gazte gara gazte

Beroa handia egin zuen arren, giro ederrean pasa zuten eguna herriko gazteek; bazkarian 600 bat lagun bildu ziren eta kolorea eta bizitasuna eman zieten jaiei

EGITARAUA ▶

ABALTZISKETA

Gaur ▶

17:00. Apustua. Bi lagun patinetan, erreleboka, txirrindulari baten aurka.
Ondoren. Zaldi karrera.
18:30. Aizkolariak plazan.
22:30. Izer eta Alabier trikitilariak.

TOLOSA

Gaur ▶

09:00. Diana, Udal Musika Eskolako gaitariekin.
10:00. HITZA Pilota Txapelketako finalak Beotibarren.
10:00. XV. Kimu Futbolaren finalak.
Egunean zehar. Haur jaialdia Sortzez Garbia plazan; gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikarra...
11:30. Gipuzkoako eta Eskualdeko Toka Txapelketa, Trianguloan.
12:00. Berdura plazan Ertzaintzaren Musika Banda.
12:30. Batel estropadak Oria ibaian.
17:00. Plaza Zaharretik zezen plazara, aurkezpen paseoa, Tolosako Musika Banda, agoazilbo eta zaldi mutlekin.
18:00. Zezenketa zezen plazan Jose Ignacio Uceda Leal, Sebastian Castella eta Salvador Vega toreatzaileekin.
19:00. Plaza Berrian euskaaokea eta Disko Top festa.
19:30. Mac Jeara 's Banden kalejiraeta saioa Trianguloan.
20:30. Berdura plazan, Txistularien alardea.
23:00. Disko Top diskofesta.



Harerik gabeko hondartza zirudien atzokoan Plaza Berriak koadrilen arteko bazkarian eguzkitako eta itzalkinez bete baitzen. IÑIGO TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Atzokoa, ekitaldiz betetako eguna izan zen San Juan jaien egitarauaren baitan egin zen Koadrilen Egunean. Herriko gazteak izan ziren protagonista nagusiak haiei zuzendutako egunean.

Eguerdiko hamabietan elkartu ziren Tolosako koadrilak

Berazubi plazan prestaturik zeuden ekitaldiei hasiera emateko, eta bazkaltzeko ordua iritsi bitartean, musikaz eta joko desberdinez gozatzeko aukera izan zuten, txarangek, trikitilariak eta dultzaineroek giroa alaitzen zuten bitartean.

Koadrila bakoitzako kideek eurak bereizteko kamisetak eraman zituzten soinean; horietako gehienak, marrakzi eta lelo barregarriekin hornitutakoak izan ziren.

Bazkalorduan, berriz, Plaza Berrian zuten hitzordua koadrilen bazkarirako izena emanda zuten lagunek. Han bildu ziren denak, Plaza Berria

ez ezik, herriko kaleak alaitu zituzten gazteek, haiek eman zioten festari kolorea.

Itzal bila

Bero handia egin zuen egun osoan zehar eta batez ere bazkaltzen ari zirenean, baina hala eta guztiz ere festarako grina eta gogoia nabari zen gerturatu ziren ia 600 gazteen artean.

Koadrilek eguzkitakoak eramane zituzten plazara ordu horietan jasanezina zen beroari aurre egin ahal izateko. Bazkalorduan gazteak itzalpean bazkaltzen egon ziren arren ez zen nahikoa izan fresko egoteko.

Plaza Berria eguzkitakoz bete zen, baina horretaz gain gazteen artean kapelak ere banatu zituzten. Guztia behar behar zegoen atzokoan eroso egoteko.

Horrelako egunetan gertatu legez, koadrilak elkar nahastu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko aukera paregabea izan zuten. Solasean, kontu-kontari, eta batez ere festarako gogoz aritu ziren gazteak bazkalostean.

Beroari aurre egiteko edana ere ez zen falta bazkarian; jai nola hasi zen badakigu baina nola bukatu zen...

Zikiroa izan zen atzoko bazkarian; prestatzen aritu zirenak ere blai eginda bukatu zuten.

Dantzak ere izan zuen bere lekua bazkarian; ohiko erromerian, *Xenpetiki-dantza* eta *Larrain-dantza* egitera gazte asko animatu ziren.

Arratsaldean eta gauean ere izan zuten tolosarrek erritmo desberdinak dantzatzeko aukera gehiago: Mulambo perkusio taldea kalez kale ibili zen arratsaldean, eta, gauean, kontzertua eskaini zuten O Jarbanzo negro eta La Kinky Beat taldeek.

Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitetz harpidedun!

Bihar azken eguna!

943 30 43 46

astegunetan
(08:30etik 20:30etara)
larunbatetan
(09:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
hitza

hitza

BELUR S.L.

garbitegi industrialak

Tel.: 943 67 60 15 • mug.: 618 211 856
Okobio industrigunea, 51 • BELAUNTZA

elketa
jaletrea
Tel.: 943 65 39 92

ZABALDU BERRIA

Mahaik erreserbatzeko deitu:
943 65 39 92
607 991 224



Tolosa Kup. Berazubiko kiroldegian jokatu zen atzo eguerdian Tolosa Kup-eko finala. Kupelzaleak taldeko kideak izan ziren aurtengo txapelketako irabazleak; Santos harategia taldeko jokalarien aurka jokatu zuten. Argazkian, Kupelzaleak taldeko jokalaria. IÑIGO TERRADILLOS



Mulambo taldea. Perkusio erritmoek hartu zuten lekukoa Koadrilen arteko bazkariaren ondoren; hamar lagun inguruko taldea Plaza Berritik abiatu zen eta herriko kaleak alaitu zituzten. IÑIGO TERRADILLOS



Txirrindulariak. Agustín Urkola txirrindulari proba burutu zuten bigarren urteko kadeteek. San Frantzisko kalean amaitu zen proba; argazkian, probako irabazleak. IÑIGO TERRADILLOS

Txistularien alardea, gaur

Txistuak Tolosan toki handia izaten du, emanaldiak noiz-behinka antolatzen dituzten arren. Aurten, San Joan jaie-tan alarde bat egitea pentsatu dute txistulariek. Orotara, 75 musikari eta dantzariren parte hartzea izango da: Euskadiko Txistularien Elkarte-ko Txistulariak, Tolosako Ganbera Abesbatza, Tolosako Musika Eskolako Metal Boskotea, Perkusio Taldea eta artista gonbidatuak tartean. Kike Amonarrirek aurkeztuko du emanaldia eta guztiak Tolosako Udaleko Txistulari Bandako zuzendari Iñaki Letamendiaren esanetara ariko dira Berdura plazan, 20:30ean.

Honakoa da prestatu duten egitaraua: *Mendi aldera* biribilketa, *Alkate soinua* kanta ezaguna, *Maritxu*, *Pepe Andoain*, *Auspo jotzailearen ametsa*, eta *Gurea*. Makina bat akordeoi txapelketa irabazi dituzten Maribi Urruzola eta Jesus Mari Esnaola izango dira, Azpitarte anai-arrebekin. *Aintziñeko minuetoa*, *Xalbadorren heriotzean*, *Txakolin*, *Leonena*, *Garbo* ere joko dituzte jarreraian.

Alardea amaitzeko *Goenkaleko* bi aktore (Iker Galarrza eta Joseba Usabiaga) ariko dira *Mando baten gainean* eta *Agur Xiberua* abestuz. ◀

Kirolaren tartea

Kirol ekitaldi ugari burutu ziren atzokoan; zesta puntan eta tenisean San Joan sarien finalak jokatu ziren, esaterako.

Tenisean, Aldazek erraz gelditu zen txapeldun; 6-4 eta 6-2 irabazi zion Hernandezzi.

Koadrilen arteko areto futbol-eko, Tolosa Kup-eko, finala izan zen, hala ere, gazteek gertuagotik jarraitu zutena. Finala Kupelzaleak eta Santos harategia taldeen artekoa izan zen. Kupelzaleak taldeko jokalariek erraz irabazi zuten partida; 7-2 gailendu ziren.

Herriko kaleak txirrindulariz josi ziren arratsaldean, Agustín Urkola bigarren urteko kadeteen txirrindulari proba zela eta. Ikusle ugari gerturatu ziren txirrindularien ahaleginak ikustera. Irabazlea, Tejas Garmendia taldeko Julen Gonzalez izan zen; bigarren eta hirugarren postuan Urko Izagirre eta Joseba Goikoetxea sailkatu ziren. Proba amaitu zuen lehenengo herritarra, Unai Aranburu izan zen.

KUPELA
Zabernak

Etorri sanjoanek gurekin ospatzera!

Plaza berria, z/g • **TOLOSA**
Tel.: 943 67 20 70

Pintxoak ogitartekoak eta giro euskalduna

in→

argiketariak & igeltseroak iturkinak & pintoreak arotzak

eskaiolista & dekoratzaileak zoruak & leihoak altzariak & sukaldeak

gremioen koordinazioa

Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 36 40

T
Tolosako Gas

Ondo pasa sanjoanetan!

Gas Naturala banatzen dugu.
Energia eraginkorra, merkea eta ekologikoa

Abisuak: 943 44 50 90

TOLOSA GASA S.A
Tel.: 943 67 53 20 / Faxa: 943 67 55 11
Arostegieta kalea, 18 - beheia
TOLOSA

DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Ari Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin
- Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Ofativa
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.
Martxoetik ekainera

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 65 23 39
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Ibarraldea. Osasun eb: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Tolosa M^a I. Kale nagusia
 7 (Tolosa). 67 06 48. Erbiti.
 Lizarraga 7 (Leitza). 112.
Bihar. Etxebeste J.M. Gernikako
 arbola 3 (Tolosa). 65 10 40

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaldea. 687 41 00 22
 anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
 leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Haurrak zaintzeko. Neska euskaldun batek (20 urte, unibertitate ikaslea) haurrak zaindiko lituzke uztailean eta abuztuan. 943 67 44 76.
Etxeko lanak. Alegian emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Ordutegia: 10:30etik 14:30era. Telefonoa: 943 65 30 34 (arratsaldetan deitu).

SANJOANAK-SAN PEDROAK ▶

Abaltzisketako eta Belauntzako jaien azken txanpa

Belauntzan atzo amaitu ziren jaiak eta Abaltzisketan gaur; Leaburuko sanpedroetan gaur herri kirolak izango dira



Hemezortzi bikotek eman zuten izena Abaltzisketako II. Mus Txapelketa herrikoian. OLAIA ESKITXABEL



Segalariak lehiatu ziren Belauntzan. D. GIBELALDE



Belauntzan jolastu ziren haurrak. D. GIBELALDE

D. GIBELALDE/O. ESKITXABEL

Eguzkiaren babesean egin zituzten atzo Abaltzisketako San Joan jaietako ekitaldiak. Larrunari elkartean, II. Mus Txapelketa egin zuten. Mahaian eserita, puruak ahoan eta kartak eskuan, jokoan aritu ziren 18 bikote. Gaueko freskotasunean, sagardoa dastatzeko aukera izan zuten herriko plazan; bertan afaldu zuten herritarak.

Apustuarekin bukatu eta gaur halaxe hasiko dute eguna abaltzisketarrek. 17:00etan lagun batek patinetan eta besteak txirinduan Abaltzisketatik Amezketara, bi kilometroko bidea egingo dute. Ondoren zaldi lasterketa izango da Amezketatik Abaltzisketarako bidean. Amaiztean, Mugerza eta Otaegi aizkolarien saioa izango da herriko plazan. Jaietako Izer eta Alabier trikitilariak emango diete amaiera.

Beroak ez zituen izutu atzo belauntzarrak; ekitaldi ugari izan ziren arratsaldean. Egitarau ofizialean, sega apusua, harrijasotzailearen saioa, aizkolaria, txinga, toka eta bolo txapelketa antolatu zituzten. Gero, hainbeste kirol egin eta indarbertziko eta barrenak freskatzeko kostila jatea egin zuten barrikotearekin. Musika, Epelde eta Larrañaga trikitilarien kontu joan zen.

Besteak beste, musean eta haur jolas desberdinetan aritzeko aukera ere izan zuten belauntzarrek jai alternatiboan egitarauaren baitan. Gauean, tortila txapelketa egin ondoren, gazteen jolasekin iritsi zen jaien amaiera.

Herri kirolak Leaburun

Goizean meza, dantzariak eta toka txapelketa izango dira Leaburun; 18:30ean, herri kirolen erakustaldia hasiko da. Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa jokatu dute lehenik. Jarraian trontzalariak eta lasto altxatzaileen erakustaldia izango da. Txalpartarien ondorekin, Andoni Otegi herri argazkia egingo diote ondoren. Gaua alaitzeko, Aiora eta Izaro trikitilariak ariko dira.

iragarki laburrak ▶

Lorezainak, garbitzaileak, beharginak, zerbitzu anitzak, sukaldari laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza eta udalarentzako. Hurrengo inkomporazioak: Donostia, Bergara, Hernani. Doako informazioa. 943 650193.
Igelseroak, iturginak, arotzak, beharginak. Plaza finkoak udal eta Eusko Jaurilaritza. Doako

informazioa. 943 650193.
Ezinduak. Erreserbatutako plaza finkoak. Lortu zure lanpostua udal eta Eusko Jaurilaritza; garbitzaileak, gidariak, zaintzaileak, zerbitzariak. Doako informazioa. 943 650193.
Ezinduak. Lanpostu finkoak erresidentzia, ospital, ikastetxe eta egoitza publikoetan. Doako informazioa. 943 650193.

Harreragile-telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurilaritza eta udalaren. Inkomporazioak laister. Doako informazioa. 943 650193.
Yate untzien gidaria. Lortu titulua eta gozatu itsasoaz. Doako informazioa. 943 650193.
Zaintzaileak. Haurrak eta agureak zaintzeko plaza finkoak udal eta foru aldundietan. Doako informazioa. 943

650193.
Liburtegiko zaintzaileak, udal arribategi eta unibertsitatean lan egiteko. Berehalako inkomporazioak. Doako informazioa. 943 650193.
Banketxe eta kutxak. Laguntzaileak behar dituzte. Ezinbestekoa: BBB. Inkomporazioak laister. Doako informazioa. 943 650193.
Gizarte langilea. Laster

inkorporazioak udalaren, Foru Aldundian. Doako informazioa. 943 650193.
Osasunbidea. Administrazioak, erizain laguntzaileak eta OLTrako 189 plaza. Doako informazioa. 943 650193.
Laborategiko teknikoak eta laguntzaileak, ingurugirokoak. Plaza libreak erakunde ofizialean. Doako informazioa. 943 650193.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Uztailaren 7an ETBra Mexikoko mariachi-en grabaketa ikustera joateko gonbitea luzatu du Guraso Elkartek. Izen-ematea dendetan, tabernetan, farmazian, Gaztebanean eta jubilatuen elkarteetan.
Tolosa. Sexu askatasunaren aldeko eguna dela-eta, bihar 20:00etan kontzentrazioa Trianguloan. Ezker abertzaleak deituta.
Tolosa. Irrintzi taldearen *Ilargiaren txangoa* txotxongilo emanada. Amarozen 17:00etan.
 Antzerki astearen barruan. Bihar 22:00etan Pasaiaiko antzerki taldearen *El veneno del teatro*.
Tolosa. Fofito Aragonen zirkoa San Esteban auzoan. 12:00etan eta 20:00etan.
Ugarte. *Adinekoak eta giza baliabideak* hitzaldia. Bihar 16:00etan liburutegian.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Kultur Ebteko tailerretako ikasleen lanak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Herriko artisten lanak Txinparta elkartearen. 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.
Tolosa. Faustino Aranzabal donostiarrenen koadroak Aranburu Jauregian. Uztailaren 7a bitarte.
Tolosa. Charo Berra tolosarraren margolanak Lanbroa tabernan.
Tolosa. Mari Carmen Gorbea donostiarrenen margolanak Saikin tabernan.

ZINEMA

Tolosa. *La joven de la perla.* 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar 19:30ean eta 22:30ean.

220 lagun Dinamartxan

TOLOSA-ONDARROA ▶ Bi herrietako lagunek Dina Bilbao izan zuten gogoan bizikleta martxarekin; kamiseta lehiaketan eskualdeko ordezkariak izan ziren



Tolosaldeko lagun batzuk Albizturko igogera. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Tolosaldeko eta Ondarru inguruko 220 lagunek —bizkaitarrak gehienak— egin zuten atzo Dina Bilbao triatlota zenaren bi herrien arteko ibilbidea bizikletaz. 1997ko ekainean desagertu zen ziklista ondarrutarra Kari-beko uretan katamaran batean, mutil lagunarekin batera. Hurrengo urtetik aurrera Dina Bilbao Tolosan bizi zenean askotan bizikletaz egiten zuen txangoa errepikatzea pentsatu zuten, Tolosatik Ondarroara alegia. Ibilbide gogorra da, Bidiariara igo, gero Lasturrera, bertan hamaiketako egin, segidan Kalbarioa igo eta Ondarroara iritsi aurretik, Saturrango aldapa. Istripurik ez zen izan eta arazorik gabe iritsi ziren Dinamartxako parte-hartzaile guztiak. Urtero errepikatu dute eta atzo Berazubiko kiroldegitik abiatu zen bederatzia aldera tropel handia eta bazkalordurako iritsi ziren Ondarroara. Txirindulariak iritsi ziren unea «hunkigarria» izan

zen, jende izugarria bildu zelako eta irrintzien artean sartu zirelako 220 txirindulariak. Gainera Zapato Azule egun berezia zen atzo Ondarroan. Jende guztia mahonezko arroparekin jantzen den festa, *Bolobolo* aldizkariak antolatua. Eta ekitaldien barruan, Euskal Herriko Kamiseta Azoka izaten da urtero. Hor ere izan ziren Tolosaldeko ordezkariak: bost urtetan lehiaketa irabazi duen Oihana Ugarte (Tartalo) eta Beñat Azurmendi (Katillu). Eskualdeko txirindulariek Kafé Antzokian bazkaldu zuten antolatzaileekin eta Dina Bilboren familiarekin. Ondoren makina bat ekitaldi izan zituzten arratsalde eta gau osoan zehar: preson aldeko kontzentrazioa, zementografia —apisonadora batek egindako artea—, albokariak, trapezista, rock kontzertua, Guinea Bissauko danborjoleak, erromeria, kantu zaharrak, gaitariak... Omenaldia ere izan zen, Miren Lore Bengoetxea, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzako* zuzendaria.



Harrera beroa izan zuten txirindulariek. LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

CORRIDA EXTRAORDINARIA DEL AÑO 101
 SAN JUAN JAIAK 2004
Ekainak 27 Junio
 Arratsaldeko 8 Tardes
 Espectáculo único de la presidencia de D. Anacleto Rodríguez
 (Lideres: José Antonio y José María) para el día de San Juan en el Estadio de San Juan
Uceda Leal Sebastian Castella Salvador Vega
 (Lideres: José Antonio y José María)
Ekainak 24 Concurso de recordadores
 Junio y Vices bravos (Lideres: José Antonio y José María)
 Lector, SUGUIA, Beldarra, etc.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Naiara Rodas (Berrobi).
 Gaur 18 urte. Ume izaten uzteko garaia heldu zaizu berez. Koadrilaren partetik.



URTE ASKOAN
 Iosu Sagastume (Amezketak). Gaur 9 urte. Zorionak gure ebteko txapeladun!



URTE ASKOAN
 Garazi Gibelalde (Beasain).
 Atzo urtebete. Zorionak eta muxu handi bat Tolosako familiaren partetik.

HITZA,
 zorion agurren tartea
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!
HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)